**2016-10-25eko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2016ko urriaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gai-zerrenda aztertzeko:

- Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

- Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

- Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea .

- Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa. Jarraian, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak agindutakoa.

**LEHENENGO GAIA**

AURREKO AKTA ONARTZEA (2016-09-20).

Idazkariak esan du ez duela prestatu, lan asko daukalako; baina saiatuko dela datorren astean bidaltzen e-mailez, bai eta ekainekoa eta uztaileko akten behin betiko bertsioak ere. Halaber, bertaratuei eskatu die, oharrik badute, jakinarazteko.

Ainhoa Ugalde zinegotziak eskatu duela aktak eguneratuago bidaltzea, zailago delako gero gogoratzea eta akten edukia kontrolatzea.

Idazkariak erantzun dio ulertzen duela eta saiatuko dela ahalik eta lehenen bidaltzen.

**BIGARREN GAIA**

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/171 ETA 2016/192 DEKRETUA BITARTEKOAK.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio udalbatzari: 2016ko 171. zenbakitik 2016ko 192. zenbakira bitartekoak.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du haren taldeak ez daukadala horren gainean esateko ezer.

**HIRUGARREN GAIA**

**2017ko EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkatetzak jakinarazi du komeni dela udaleko hainbat zerga eta tasa aldatzea, onartutako legezko zerga-aldaketetara egokitzeko, hala badagokio, eta udal-baliabideetara eta udal-zerbitzuen kostuetara egokitzeko, egungo errealitate ekonomikoa kontuan izateari utzi gabe.

Kontuetako, Ogasuneko eta Aurrekontuko Batzordeak urriaren 20an egindako bileran emandako irizpena ikusita.

Idazkari kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa ikusita, eta zerga-arloan indarrean dagoen legediaren arabera, eta zehazki, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, 5 zinegotzi alde

Por parte de la Alcaldía se hace saber la conveniencia de proceder a la modificación de diversos Impuestos y Tasas municipales, de cara a adecuarlos a las modificaciones legales tributarias aprobadas, en su caso, y a los recursos municipales y al costo de los servicios municipales. Sin perjuicio de tener en cuenta la realidad económica existente.

Visto el dictamen de la Comisión de Cuentas, Hacienda y Presupuestos en reunión celebrada el día 20 de octubre.

Visto el informe económico-financiero del Secretario-Interventor y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente en materia fiscal, en concreto la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Ante ello, el Pleno por 5 votos a favor (EAJ/PNV) y 3 votos en contra

(EAJ/PNV) eta 3 aurka (EH Bildu) daudela, onartu du hartzea honako

ERABAKIA:

1.- 2017. urteko ekitaldirako, Irurako Udaleko egutegi fiskala onartzea.

2.- Behin-behinean onartzea Irurako Udaleko Zerga-ordenantza hauek aldatzea:

A) Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatiko tasak:

Etxez etxeko zabor-bilketaren tasa.

Tarifak:

**ETXEKO ZABOR BILKETAREN TASA.**

Etxebizitzak, hiruhileko bakoitzeko: 22,50 €.

Denda, elkarte eta 3 ibilgailu baino gehiagoko garajeak, hiruhileko bakoitzeko: 34 €

Tabernak, hiruhileko bakoitzeko: 43 €.

5 langilerainoko lantegiak, hiruhileko bakoitzeko: 62 €.

6 eta 20 langile bitarteko lantegia, hiruhileko bakoitzekok: 94 €.

20 langile baino gehiagoko lantegiak, hiruhileko bakoitzeko: 160 €.

Diskotekak, dantzalekuak eta antzekoak, hiruhileko bakoitzeko: 468 €.

Orokorrean beste unitateak, hiruhileko bakoitzeko: 20 €.

Baratzeetan, hiruhileko bakoitzeko: 10 € hiruhilean

B) Aldaketa hauek 2017ko

(EH Bildu), acuerda adoptar el siguiente

ACUERDO:

1º.-Aprobar el Calendario Fiscal de este Ayuntamiento de Irura, para el ejercicio de 2017.

2º.-Aprobar con caracter provisional la Modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales de este Ayuntamiento de Irura:

A) Tasas por la prestación de servicios públicos y la realización de actividades administrativas:

Tasa de recogida domiciliaria de basuras.

Tarifas:

**TASA DE RECOGIDA DOMICILIARIA DE BASURAS:**

Por vivienda al trimestre: 22,50 €

Por comercios, sociedad y garajes de más de 3 vehículos al trimestre: 34 €

Por establecimientos hosteleros, al trimestre: 43 €

Por industrias de hasta 5 trabajadores, al trimestre: 62 €

Por industrtias de 6 hasta 20 trabajadores, al trimestre: 94 €

Por industrias de más de 20 trabajadores, al trimestre: 160 €

Por discotecas, Salas de Fiestas y similares al trimestre: 468 €

En general, por resto de unidades, al trimestre: 20 €

En las huertas de cultivo, al trimestre: 10 €

B) Estas modificaciones

urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean.

Hirugarrena.- Erabakia eta espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki-oholean argitaratzea. Izapidetzea arau hauen arabera gauzatuko da:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzailetzan egongo da.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, eta Udal-bulegoaren lanorduetan.

c) Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozeduraren Legearen 38. artikuluak adierazitako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzan aurkeztu beharko dute.

Laugarrena.- Erreklamaziorik

entrarán en vigor al 1 de enero de 2017.

Tercero.-Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Cuarto.- En el caso de que no

aurkezten ez bada, erabakia behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Alkateak adierazi du joan den urtean etxebizitzen zabor-tasa ez zela aldatu, eta aurten zerbitzuaren defizita igo dela (2016an % 41 izango da). Ikusita inguruko herrietan etxebizitza-tasa hemen baino altuago dela, proposatu du % 12,5 igotzea, eta 80 eurotik 90 eurora pasatzea.

Ainhoa Ugalde zinegotziak jakinarazi du haren taldeak kontra bozkatuko duela. Hasteko, gastu gehiago dagoelako igoko da defizita, eta, gainera, ez daude ados sistema-aldaketarekin.

Alkateak erantzun dio sistema-aldaketarekin Tolosaldeko Mankomunitateak Irurari baino ez diola gehiago kobratzen. Sistema-aldaketa izan duten beste herrietan faktura gutxitu da, eta hemen alderantziz gertatu da.

Ainhoa Ugaldek galdetu du zein den horren arrazoia, eta alkateak erantzun dio Anoetako eta Zizurkilgo zerbitzuen kostuaren zati bat ordaintzen dugula.

Ainhoa Ugaldek berriz galdetu dio arrazoia ez den errauskailuaren ondorioz kostua igo dela, eta alkateak erantzun dio Mankomunitateak ez diela arrazoi hori eman.

Ainhoa Ugaldek erantzun dio Irurak ezin duela beste herriaren kostua bere gain hartu, eta salatu behar dela eta hori ez dela salatu. Jakitera eman du haren taldeak aurka bozkatuko duela, eta, amaitzeko, eskatu du egin den zaborraren karakterizazioaren txostena haren taldeari ere ematea.

Alkateak erantzun dio emango diela.

**LAUGARREN GAIA**

**2015eko EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO KONTU OROKORRAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63. artikuluaren arabera, Toki Erakundearen urteko orrien eta kontuen berri emango du udalburuak.

Toki-erakundeko kontuen batzordeak udalburuak aurkeztutako Kontu Orokorrak aztertu ditu, eta ontzat eman ditu.

Gainera, ez da jendaurrean jarri oraindik.

Horrela, 2015eko ekitaldiko Irurako Udaleko Kontu Orokorrak aurkeztu dira dagokien dokumentazioarekin.

Hori ikusita, Udalbatzak, 5 zinegotzi alde (EAJ/PNV) eta 3 aurka (EH Bildu) daudela, hau onartu du:

ERABAKIA

1.- Aipatu diren Kontu Orokorrak onartzea. Hala ere, jendaurrean jartzen direnean eta erreklamaziorik aurkezten bada, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari erabaki honekin batera bidaliko dira.

2.- Kontu Orokorren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

Idazkariak azaldu du onartzeak ala ez onartzeak ez duela eraginik. Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du, eraginik izan ez arren, onarpenak esanahi sinbolikoa ere baduela, eta kontu orokorretan web-orri berriaren kontratuaren gastua azaltzen dela, irregulartasunak izan zirela horretan eta hamalau mila euro kostatu zuela, aurrekonturik garestiena izan zen eta.

Alkateak erantzun dio kostua hiru mila eurokoa izan dela bakarrik Irurako Udalarentzat, Aldundiak diruz lagundu duelako.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio, nahiz eta diru-laguntza publikoa jaso, norbaitek beste hamar mila euro jarri dituela. Hala, azkenean, Gipuzkoari hamalau mila euro kostatu zaizkio, eta enpresa horrek zenbateko hori irabazi du. Halaber, badakite noren enpresa den, eta beste aurrekontuek erdia kostatzen zutela.

**BOSGARREN GAIA**

**2016ko EKITALDIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 1. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

| | |
|---|---|
| Udal honen 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketaren (1/2016) berri eman da, alkateak proposatutakoa. | Se da cuenta del Expediente de Modificación de Créditos nº 1/2016, del Presupuesto de este Ayuntamiento del ejercicio económico de 2016, propuesta por la Alcaldía. |
| Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita. | Visto el informe del Secretario-Interventor. |
| Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioko | Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de |

informazio-batzordeak urriaren 20ko bileran hartutako irizpena ikusita.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, 5 boto alde (PNV) eta 3 abstentzio (EH Bildu)daudela, onartu du hartzea honako

ERABAKIA

Lehena.- Behin-behinean onartzea 1/2016 kreditu-aldaketaren espedientea, 2016ko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena. Hona hemen laburpena:

Cuentas Generales, Presupuesto y Administración en reunión celebrada el día 20 de octubre.

Ante ello, La Corporación acuerda por 5 votos a favor (PNV) y 3 abstenciones (EH Bildu) la adopción del siguiente acuerdo:

ACUERDA

Primero.- La aprobación provisional del Expediente de Modificación de Créditos nº 1 del Presupuesto del ejercicio económico de 2016, con el siguiente resumen:

A) GASTUEN HEDADURA: 270.000 €

| Kapitulua/ Partida | Egungo zenbatekoa | Igoera | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| -6. Kapitulua<br>Partida:<br>1.0000.603.152.10.00 | 0 | +270.000€ | 270.000€ |

B) FINANTZAKETA: 270.000 €

B.1.- 2015eko DIRUZAINTZAREN SOBERAKINAK: +63.000 €

B.2.- GASTUEN MURRIZKETA 110.000 €

| Kapitulua/ Partida | Egungo zenbatekoa | Murrizketa | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| -6. Kapitulua<br>Partida:<br>1.0000.601.153.20 | 240.000 € | - 110.000 € | 130.000 € |

B.3.- DIRU SARRERERN GEHIKUNTZA 97.000 €

| Kapitulua/ Partida | Egungo zenbatekoa | Igoera | Guztizkoa |
|---|---|---|---|
| -6. Kapitulua<br>Partida:<br>2.0000.603.001<br>-7.Kapitulua<br>Partida<br>2.0000.710.01. | 110.000 € | +80.000 € | 190.000 € |

500 € +17.000 € 17.500 €

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartu dela joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da, eta, ondorioz, Udalbatzari honako hau jakinarazi zaio:

A) 2016ko aurrekontuko 1. kreditu-aldaketaren espedientearen proposamenak ez du defizitaren helburua betetzen.

- Beraz, Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udala behartuta dago Plan Ekonomiko Finantzarioa onartzera.

-Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Toki-erakundeen 2016rako Aurrekontuak onartzeko

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 1 dentro del Presupuesto de 2016 no cumple con el objetivo de déficit.

- Que en consecuencia con el art. 21 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, el Ayuntamiento está obligado a aprobar un Plan Económico Financiero.

-Sin embargo y de acuerdo con lo dispuesto en la Instrucción aprobada por la Diputación Foral

onetsi duen Jardunbidean ezarritakoaren arabera (G.A.O. 2015-11-25), Diruzaintzako Soberakinak erabiltzeari buruzko arauak betetzen ez badira —espediente honetan gertatzen den bezala—, eta 1/2013 Foru Arauko 5. artikuluaren hirugarren paragrafoan ezarritakoari jarraikiz, honako hau jakinarazio da: Egoera hori gertatu da, eta Udalaren finantza-iraunkortasuna aztertzen eta ebaluatzen duen idazkari kontu-hartzailetzaren txostena erantsi da. Txosten horren arabera, Udal honen finantza-iraunkortasuna ona da.

de Gipuzkoa para la aprobación de los Presupuestos de las Entidades Locales para 2016 (B.O.G. 25-11-2015), en el caso de no cumplimiento de las normas citadas por utilización del Remanente de Tesorería, como es en este expediente, y de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo tercero del art. 5 de la Norma Foral 1/2013, se realiza la siguiente comunicación: Se manifiesta la circunstancia citada y se adjunta un informe de Secretaria-Intervención en el que se analiza y evalúa la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento. De acuerdo con dicho informe la sostenibilidad financiera de este Ayuntamiento es buena.

B) 1. kreditu Aldaketaren espedientearen proposamenak ez duela betetzen gastuaren araua, eta, ondorioz, behartura dagoela Plan Ekonomiko eta finantzarioa onartzera.

B) Que la propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 1, no cumple con la regla de gasto y por lo tanto está obligado a aprobar un Plan Económico-Financiero.

Hala ere, aipatu den Instrukzioaren 3. arauaren arabera, ez-betetzea diruzaintzako soberakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, kasu honetan bezala, Plan hori aurretiaz xedatutako jakinarazpenarekin ordeztuko da.

Que sin embargo y de acuerdo con la Regla 3 de la Instrucción citada, en el caso de que el incumplimiento se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, como es en este caso, dicho Plan se sustituirá por la comunicación al Pleno prevista anteriormente.

Mikel Iturbe zinegotziak azaldu du puntu hori lotuta dagoela hurrengo puntuarekin, hau da, lursailaren erosketa. Gainera, dio proposamenaren puntu batzuk ez dituela ulertzen. Izan ere, proposatu da informatikaren eta altzarien partidak asko igotzea, eta ez dakite zertarako egiten den hori.

Idazkari kontu-harzaileak erantzun du ez dituela gastuen datuak bertan, eta bidaliko dituela.

Mikel Iturbek esan du puntu horretan eta hurrengo puntuan abstenituko direla. Izan ere, alde batetik, ez da erosketaren helburua argitzen, eta, beste aldetik, haien finantzazioak ez die uzten aurten bestelako gastuak burutzea.

## SEIGARREN GAIA

## BIDAOR-ENEA LURSAILAREN EROSKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak, egungo jabe den HARRI IPARRA SAU (Kutxabank % 100) enpresarekin haren merkaturatzailearen den Neinor Homes enpresaren bidez aurrena negoziatuta, Iruran kokatutako finka hau kostubidez eskuratu nahi du:

HIRIKOA: lehen Portalenea deitzen zen etxea, gaur egun VIDAOR-ENEA deiturikoa. Irurako kale Nagusian kokatuta dago, eta eraikinak behe-solairua edo sotoa, soilaru baxua, bi solairu altu eta teilatupeko ganbara ditu. Ehun eta hirurogeita bost metro karratuko orubea hartzen du. Hormaz zedarritutako ortua eta inguruko hesia etxearen eranskinak dira, eta mila bostehun eta hogeita hamazazpi metro karratu neurtzen dituzte. Etxeak errepide nagusiarekin egiten du muga ekialdetik (aurrealdetik). Iparraldetik (eskuinetik), Camio baserriaren Atari-soroa sailarekin egiten du muga, eta bide partikular batek bereizten ditu. Hegoaldetik (ezkerretik), Aguerre baserriaren lurrekin (gaur egun, San Miguel Taldea) muga egiten du, eta mendebaldetik, banatutako lursail batekin.

Este Ayuntamiento de Irura y previa negociación con su actual propietario ,la mercantil HARRI IPARRA SAU (100% Kutxabank) a través de su comercializadora Neinor Homes, quiere adquirir a título oneroso la propiedad de la siguiente finca, sita en Irura:

URBANA: Casa llamada antes Portalenea y actualmente VIDAOR-ENEA, situada en la calle Mayor, del lugar de Irura, cuyo edificio consta de planta baja o bodega, piso bajo, dos pisos altos y desván bajo cubierta; ocupa un solar de ciento sesenta y cinco metros cuadrados. La huerta cercada de paredes y verja que circunda la casa y es accesoria de la misma, mide mil quinientos treinta y siete metros cuadrados. Linda el conjunto de la finca por Este o frente, con la carretera general; por Norte o derecha entrando con la heredad Atari-soroa de la casería Camio, de la que le separa un camino particular; por sur o izquierda con terrenos de la casería Aguerre, hoy Grupo San Miguel; y por Oeste, con parcela segregada.

Gaur egun, eraikina eraitsita dago, eta orubea irekia da. Kale Nagusiaren 14. zenbakian kokatzen da, eta hona hemen haren mugakideak: iparraldetik, Peilo Arrese-Igor kalea; ekialdetik, Kale Nagusia edo foru-errepidea; hegoaldetik, Patxiku-Pagadizabal Kalea; mendebaldetik, Peilo Arrese-Igor kaleko 3. zenbakia.

En la actualidad el edificio ha sido derribado y el solar se encuentra expedito y está numerado con el nº 14 de Kale Nagusia y con los siguientes linderos: por Norte con Peilo Arrese-Igor Kalea, por Este, con Kale Nagusia o carretera foral; por Sur con Patxiku-Pagadizabal Kalea, y por Oeste con el nº 3 de Pielo Arrese-Igor Kalea.

Tolosako 1. Jabetzaren Erregistroan jasota dago, Irurako 39. Liburuan, 139. finka-zenbakiarekin. Katastro-erreferentzia: 7579166.

Está inscrito en el Registro de la Propiedad nº 1 de Tolosa. Libro 39 de Irura y finca 139. Referencia Catastral: 7579166.

Halaber, bizitegi-lurzoru hiritar gisa sailkatuta dago, Irurako Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorraren 5. gunea - Aizpuruan.

Así mismo tiene la clasificación de suelo urbano residencial en el Area 5. Aizpurua del Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

Eskuratzeko arrazoia da udalak etxebizitzaren arloan dituen eskumenak gauzatzea.

El objeto de la adquisición es el desarrollo de las competencias municipales, en especial en materia de vivienda.

Halaber, Aitor Gabilondo abokatuak eta Iñaki Echeverria arkitektoak emandako aurretiazko txostena ikusita,

Visto así mismo el informe previo pericial emitido por el abogado Aitor Gabilondo y el arquitecto Iñaki Echeverria.

Udalaren 2016ko Aurrekontuko 1.0000.603.152.10.00.2016 partidan (Kredituak aldatzeko 1. espedientea) kreditu nahikoa dagoela ikusita,

Vista el suficiente crédito presupuestario en la partida: 1.0000.603.152.10.00.2016 del Presupuesto de este Ayuntamiento para 2016 (Expediente de modificación de créditos nº 1).

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita,

Visto el informe del secretario-interventor.

Hori guztia dela eta,

Ante ello, la Corporación

Udalbatzak, 5 boto alde (PNV) eta 3 abstentzio (EH Bildu) daudela, onartu hartzea honako

acuerda por 5 votos a favor (PNV) y 3 abstenciones (EH BILdu)  la adopción del siguiente

ERABAKIA:

ACUERDO:

1.- Neinor enpresari aipatutako lursaila salerosketa bidez erostea, kargarik eta errentamenturik gabe eta jabetza osoan. Prezioa 215.000 euro gehi BEZ da. Epe bakarrean ordainduko da, notario aurrean eskritura publikoa sinatzean.

1º.- Adquirir mediante compra-venta, libre de cargas y arrendamientos y al corriente en el pago de impuestos y cargas, en plena propiedad, a la empresa Neinor la parcela citada por el precio de 215.000 euros más IVA. El precio se desembolsará de una sola vez a la firma de la escritura pública ante notario.

Udalak bere gain hartuko ditu gastuak, gainbalioen gaineko zerga izan ezik.

Los gastos, salvo el impuesto de plusvalía, serán a cargo de este Ayuntamiento.

2.- Aipatutako finka Irurako Udalaren Lurzoru Ondarean sartuko da, dagokion legedi zehatzaren arabera.

2º.-La citada finca se integrará en el Patrimonio Municipal del Suelo de este Ayuntamiento de Irura, de acuerdo con su legislación específica.

3.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate-lehendakari andreari baimena ematea notario aurrean eskritura publikoa sinatzeko eta helburu horretarako beharrezkoak diren izapideak betetzek

3º.-Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente, Ana Jesús Leunda Gurruchaga, para la firma de la escritura pública ante notaría y para el desarrollo de cualquier gestión con dicha finalidad.

Mikel Iturbe zinegotziak jakinarazi du haren taldea abstenitu dela, ez delako lurzorua erostearen helburua argitzen, ezta finkarekin zer egin behar den ere. Horrez gain, erosketa finantzatzeko, defizit handia sortuko da, eta galdetu du ez den beste finantzazio-modurik kontuan hartu. Izan ere, ordainketa zatika eginez gero, urtean ez da dirurik geratuko bestelako gauzak egiteko, hala nola plazako zahar-etxea.

Alkateak erantzun dio aukera oso ona aurkitu duela finka hori merke erosteko eta udalak ez daukala beste lurzorurik gaur egun. Gainera, kultur-etxearen ondoan dago, eta, horrela, finka osoa udalaren eskuan geratuko da.

Idazkariak azaldu du saiatu dela enpresaren ordezkariarekin zatika ordaintzea adosten, hau da, erdia aurten eta beste erdia datorren urtean. Alabaina, baldintza bat ezarri dio horretarako: abala jartzea. Esan du ez duela merezi horrelakorik egitea, kostu handia duelako.

**ZAZPIGARREN GAIA**

GALDE-ESKEAK.-

Gai hauek jorratu dituzte:

a) Alkateak jakinarazi du Xabier Artolak eta Idoia Besadak irabazi dutela Seguran egin zen Euskal Herriko Dantza Txapelketa. Eskultura-saria udaletxean geratuko da datorren txapelketa ospatu arte, eta ongietorria egingo zaie.

Ainhoa Ugaldek adierazi du Facebook-en bidez izan duela horren berri, eta eskertuko lukeela zinegotziei aurretiaz jakinaraztea horrelako berriak.

Alkateak zinegotzi guztiei gonbit egin die datorren ostegunean, zazpietan, udaletxera etortzera. Azaldu du haiei jakinarazi nahi ziela hori, baina norbait aurreratu dela. Amaitzeko, adierazi du dantza-taldeak berak antolatuko duela ekimena.

b) Ainhoa Ugaldek eskatu du premiazko herri-batzarra deitzea, udalaren berriak jakinarazteko: lurren erosketa, zahar-etxearen egoera…

Alkateak erantzun dio gogoan hartuko duela.

c) Ainhoa Ugaldek esan du Ogasun Batzordearen bilerak eguerdiko ordu batean jartzen direla, eta ezin duela ordu horretan etorri. Eskertuko luke bilerak arratsaldean egitea, ezingo baitu inoiz etorri bestela. Ulertzen du batzuetan eguerdiko ordu batean egitea, baina beti …

Alkateak erantzun dio kontuan hartuko duela.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Nik, idazkari naizen aldetik, bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA IDAZKARIA